



412/2024 EBAZPENA, EKAINAREN 4KOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ DEIALDIA EGITEN DEN ANTOLAKUNTZAKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNA – BERDINTASUNEN TEKNIKARIA LANPOSTU BAT ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENAREN EDO ZERBITZU-EGINKIZUNEN BIDEZ BETETZEKO BERDINTASUN ETA PARTE-HARTZE ZERBITZUAN, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIAREN GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARITZAKO GARAPENEN ETA PRESTAKUNTZAKO ZUZENDARIORDETZAN.

LANPOSTUA: ANTOLAKUNTZAKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNA – BERDINTASUNEN TEKNIKARIA.

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Giza Baliabideen Zuzendaritza, Berdintasun eta Parte-hartze Zerbitzua, Garapeneko eta Prestakuntzako Zuzendariordetza.

Lanaldi zatitua (Vitoria-Gasteiz).

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 3. HE (derrigortasun-data: 2017-12-03).

BETEKIZUNAK: (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude). A1-A2 lanbide-taldean adierazitako titulu guztiak.

Aldi baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo lan-legepeko kontratudun finkoa izatea.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den lanpostuaren titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa den beste kategoria batekoa izatea.
- Antolakuntzako goi-mailako teknikari-kategorian ez izatea karrerako funtzionario, estatutupeko langile finko edo lan-legepeko kontratudun finkoko izendapenik, izendapen edo kontratu horrekiko daukan egoera administratiboa edozein izanda ere.
- Zuzendaritza Nagusiari atxikita egotea langile finko gisa, Zuzendaritza Nagusiko langileen barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusia ez den beste zerbitzu-erakunde bati atxikita egotea langile finko gisa, zerbitzu-erakundeen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.
- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa izatea eta iragarritako azken EPEan kategoria honen oinarrietan ezarritako gainerako titulazio-eskakizunak betetzea.





Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikitako karrerako funtzionarioa, estatutupeko langile finkoa edo lan-legepeko kontratudun finkoa izatea edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutupeko langile finkoa izatea Antolakuntzako goi-mailako teknikari-kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea, eta lanpostuak betetzeko eskaera ez egitea norberak lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundean.

Aipaturiko baldintzak eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA (agiri bidez egiaztatu beharko dira, salbu eta CV aplikazioan badaude):

Aldi-baterako barne-sustapenaren eskatzaileentzat:

- EPEko oposizio-fasea (gehienez, 100 puntu)
- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Lan-esperientzia, kategoriaren azken lekualdatze-lehiaketaren oinarrien arabera (gehienez, 47,5 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte izangaiei aitortu zaien zerbitzaldia hartuko da kontuan.

Hizkuntzaren ezagutza

Euskara-ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa kalkulatzeko jarraituko zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan ezarritakoari.

EZAGUTZA ESPEZIFIKOAK:

- Berdintasunaren alorreko ikastaro bat gainditu izana egiaztatzea, unibertsite edo administrazio publiko batek emandakoa eta 150 ordukoa edo gehiagokoa. Aipatutako alegazioarekin batera egiaztagiraren kopia aurkeztu beharko da. Prestakuntza-orduak ikastaro bakar batekoak izan beharko dira, eta ezingo dira prestakuntza-jarduerak metatu.

- Aintzat hartuko da kudeaketa-planak egin, zabaldu edo garatzeari buruzko ezagutza eta esperientzia (Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin egiaztatuko da prestakuntza edo esperientzia, helburuak, ekintzak edo adierazleak definitzean jasotakoaren arabera).
- Parte hartzeko taldeen eta diziplina anitzeko taldeen kudeaketari eta dinamizazioari buruzko ezagutza eta esperientzia.

ESKAEREN AURKEZPENA:

Interesdunek Osakidetza Zuzendaritza Nagusiaren Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiekin, curriculum vitae dokumentatuarekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta daukatenean izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoa egiaztatzeko egokitzat jotzen duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdia webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN-HURRENKERA:

Lanpostua betetzeko lehentasun-hurrenkera honako hau izango da:

- 1.–Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo atalean adierazten dena erabiliko litzateke.
- 2.–Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabilia ezin izango balitz lanpostua bete, hurrengo paragrafoan adierazten dena erabiliko litzateke.
- 3.–Zerbitzu-erakundearen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO-BATZORDEA:

Balorazio-batzorde bat eratuko da, Giza Baliabideen Hautaketako eta Horniketako zuzendariordea edo haren ordezkaria buru dela, eta honako hauek osatuko dute: Garapeneko eta Prestakuntzako zuzendariordeak, Ebaluazioko eta Garapeneko Zerbitzu Korporatiboko buruak eta Horniketako Zerbitzu Korporatiboko buruak (azken horrek idazkari-lanak egingo ditu).


HAUTAKETA-PROZEDURA:

Balorazio Batzordeak interesdunek behar den garaian eta moduan aurkeztutako dokumentazioa baloratuko du. Aurrekoa ikusirik, proposamena egingo da dagokion izendapena formalizatzeko. Balorazio Batzordeak lanpostua bete gabe utzi ahal izango du, izangaiak eskatutako eskakizunak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 4a

 **Osakidetza**
Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORADE RECURSOS HUMANOS

**GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
LUISA LARRAURI EREÑOZAGA**